ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2017ko apirilaren 21a, ostirala • 45 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2017 Foru Dekretua, apirilaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 12ko 32/1996 Foru Dekretua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazio ereduak onartzen dituena, bai eta haien edukia ere**

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 12ko 32/1996 Foru Dekretuak onartu zuen, besteak beste, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazioaren 600 eredua eta, horren barruan, toki ondasun higiezinak aitortzeko 600-L ereduaren inprimakia.

Eredu hori diseinatzean kontuan hartu ziren Gasteizen dauden lokaletarako balorazio berezien arauak, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 7ko 19/1995 Foru Dekretuan jasotakoak. Arau horiei eutsi egin zaie foru dekretu hori ordezkatu zuten foru dekretuetan, barne Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 74/2004 Foru Dekretuan. Azken foru dekretu hori indargabetua izan da eta martxoaren 21eko 16/2017 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioztatzeko arauak onartzen dituenak, ordezkatu du. Azken foru dekretu horrekin bat etorriz, hiri ondasun higiezinak katastro balioaren arabera balioztatzen dira oro har.

Beraz, ezinbestekoa da 32/1996 Foru Dekretuaren I. eranskinean ageri den 600-L inprimaki eredua aldatzea, hura toki ondasun higiezinak balioztatzeko arau berrietara egokitzeko. Hori dela eta, aurrerantzean, foru dekretu honen eranskinean ageri den 600-L inprimaki eredu berria erabiliko da.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Arabako Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 12ko 32/1996 Foru Dekretua, zeinek ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zenbait autolikidazio eredu eta haien edukia onartu zituen.

Ordeztu egiten da martxoaren 12ko 32/1996 Foru Dekretuaren I. eranskinean ageri den 600-L inprimaki eredua, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergapeko toki ondasun higiezinen eskualdaketaren autolikidazioarena, foru dekretu honen eranskinean ageri denarengatik.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau, eta 2017ko apirilaren 4tik aurrera egiten diren eskualdaketen autolikidazioei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZALEZ VICENTE*

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*JOSE LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTINEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga**
Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

**ONDASUN HIGIEZINAK** BIENES INMUEBLES | **Lokalak** Locales

# 600 L

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**
**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**Protokolo / Erregistro zenbakia** ■ N.º Protocolo / Registro
**Notarioaren IFZ / Erregistroa** ■ NIF Notario / Registro

**Zerga** ■ Impuesto: **ESKUALD.** ■ TR / **EJ** ■ AJ

## ONDASUNEN IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN DEL BIEN

**Katastro erreferentzia (bakarrik Araba)** ■ Referencia Catastral (sólo Álava)

| **Udalerria** Municipio | **Poligonoa** Polígono | **Lurzatia** Parcela | **Azpilurzatia** Subparcela | **Eraikina** Edificio | **Zerga unitatea** Unidad fiscal | **Kontrol digitu** Dígito control |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |

**Helbidea (kalea / plaza)** ■ Domicilio (calle / plaza) — **Zk** ■ N.º — **Letra** ■ Letra
**Erakundea edo herria** ■ Entidad o Pueblo — **Udalerria** ■ Municipio — **Probintzia** ■ Provincia

## Agiriaren BEZaren inguruko datuak ■ Datos en Relación con el IVA del Documento

| **BEZ oinarria** Base IVA | **Tasa** Tipo | **Sortutako kuota** Cuota devengada | **Salbuetsia (oinarriaren artikulua eta paragrafoa)** Exento (fundamento, Art. y Apart.) |
|---|---|---|---|
| | | | |

## Ondare Eskualdaketei eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko dato teknikoa
Dato Técnico Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

**Eragiketaren kontzeptua** ■ Concepto de la operación
**Eragiketaren titulua** ■ Título de la operación
**Lehenengo eskualdaketa** ■ Primera transmisión: **BAI** ■ SÍ **EZ** ■ NO
**Aitortutako balioa** Valor declarado

### Gozamena/Jabetza soila ■ Usufructo/Nuda propiedad

**Bete 1. inprimakia gozamen/jabetza soil bakoitzeko** ■ Rellenar 1 impreso por cada usufructo/nuda propiedad

- **Biziartekoa** Vitalicio — **Gozamenduaren adina eraketa unea** Edad usufructuario a fecha constitución
- **Jabetza soila:** Nuda propiedad: — **%100 – gozam. %** 100% – % usufructo = %
- **Aldi baterakoa** Temporal — **Urte kopurua** Número de años — **urte** años

**Gozamen/jabetza soilaren balioa** Valor usufructo/nuda propiedad

## SUBJEKTU PASIBOAK / SUJETOS PASIVOS

**IFZ** ■ NIF — **Abizenak eta izena edo sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre o razón social — **Partaidetza koefiz.** ■ Coef. partic.
**Helbidea (kalea / plaza)** ■ Domicilio (calle / plaza) — **Zk.** ■ N.º — **Letra** ■ Letra — **Esk.** ■ Escal. — **Sol.** ■ Piso — **Aldea** ■ Mano
**Erakundea edo herria** Entidad o Pueblo — **Udalerria** Municipio — **Probintzia** Provincia

**IFZ** ■ NIF — **Abizenak eta izena edo sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre o razón social — **Partaidetza koefiz.** ■ Coef. partic.
**Helbidea (kalea / plaza)** ■ Domicilio (calle / plaza) — **Zk.** ■ N.º — **Letra** ■ Letra — **Esk.** ■ Escal. — **Sol.** ■ Piso — **Aldea** ■ Mano
**Erakundea edo herria** Entidad o Pueblo — **Udalerria** Municipio — **Probintzia** Provincia

## ESKUALDATZAILEAK / TRANSMITENTES

**IFZ** ■ NIF — **Abizenak eta izena edo sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre o razón social — **Partaidetza koefiz.** ■ Coef. partic.
**Helbidea (kalea / plaza)** ■ Domicilio (calle / plaza) — **Zk.** ■ N.º — **Letra** ■ Letra — **Esk.** ■ Escal. — **Sol.** ■ Piso — **Aldea** ■ Mano
**Erakundea edo herria** Entidad o Pueblo — **Udalerria** Municipio — **Probintzia** Provincia

**IFZ** ■ NIF — **Abizenak eta izena edo sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre o razón social — **Partaidetza koefiz.** ■ Coef. partic.
**Helbidea (kalea / plaza)** ■ Domicilio (calle / plaza) — **Zk.** ■ N.º — **Letra** ■ Letra — **Esk.** ■ Escal. — **Sol.** ■ Piso — **Aldea** ■ Mano
**Erakundea edo herria** Entidad o Pueblo — **Udalerria** Municipio — **Probintzia** Provincia

RE. 16/261

***IMPRIMAKI ZK.** *N.º DE IMPRESO 17 000

**PSN** ■ PVP: 0,15€

## 600L INPRIMAKIA

### JARRAIBIDEAK

**ZERGA ESKUALD. ☐ EJ ☐ :** *(ikus jarraibide orokorrak karpetan)*

**PROTOKOLO ZK., NOTARIOAREN IFZ:** *(ikus jarraibide orokorrak karpetan)*

- KATASTROKO ERREFERENTZIA: Datu hori nahitaez eman behar da.
- HELBIDEA (kalea edo plaza): zenbakia, letra, entitatea edo herria, udalerria edo probintzia. Datu horiek eskualdatuko den ondasunari buruzkoak izango dira.

**ERAGIKETAREN KONTZEPTUA, ERAGIKETAREN TITULUA:** *(ikus jarraibide orokorrak karpetan)*

- LEHENENGO ESKUALDAKETA BAI ☐ EZ ☐ : "x" marka jarri behar da dagokion laukian. Oro har, lehenengo eskualdaketatza izango da, sustatzaileak eraikitze edo birgaitze obra amaituta eta dagokion hgiezinaren Obra Berriaren aitorpena eginda ematen dena.
- AITORTUTAKO BALIOA: Laukitxo honetan hgiezinaren buruz eskrituretan aitortutako balioa adieraziko da.
- GOZAMENA / JABETZA SOILA: biak aldi berean gertatzen badira, eranskin bat bete beharko da adierazitako 3 eragiketetako bakoitzerako. Adibidez: higiezin baten gozamen eskubidea eskuratu badu "A"k, eta jabetza soilean erosi badu "B"k, 600-L eranskin bi bete beharko dira.

  "x" marka jarri behar da likidatuko den eragiketan.

  Baldin gozamena biziartekoa bada, gozamendunak eraketa unean zuen adina jasoko da. Adina 89 kopuru finkoari kenduko zaio eta, horren bidez, gozamenaren ehunekoa lortuko dugu, gehienez ere balio osoaren %10eko muga izango duena.

  Aldi baterako gozamena BADA, balioa gozamenpeko ondasunaren balio osoaren arabera kalkulatuko da; gozamenaren urte kopurua bider bi egingo da, eta % 70 edo txikiagoa izan beharko du.

  JABETZA SOILA: "x" marka jarriko da erosten edo eskualdatzen dena jabetza soila denean. Halakoetan, jabetza soilaren ehunekoa adierazi behar da; ehuneko hori lortzeko, eskualdatutako ondasunaren zenbatekoari horren gaineko gozamena kendu behar zaio.

  GOZAMEN/JABETZA SOILAREN BALIOA: hori lortzeko, higiezinaren balioari biziarteko edo aldi baterako gozamenaren ehunekoa aplikatu behar zaio; edo higiezinaren balioari kendu gozamen ehunekoa, jabetza soila aurkitzeko.

**SUBJEKTU PASIBOA, SUBJEKTU PASIBO KOPURUA, PARTE-HARTZE KOEFIZIENTEA, ESKUALDATZAILEA ETA AGIRIA AURKEZTEN DUENA:** *(Ikus jarraibide orokorrak karpetan).*

## IMPRESO 600L

### INSTRUCCIONES

**IMPUESTO TR. ☐ AJ ☐ :** *(Ver instrucciones Generales en Carpeta)*

**Nº DE PROTOCOLO, NIF DEL NOTARIO:** *(Ver instrucciones Generales en Carpeta)*

- REFERENCIA CATASTRAL: Este dato es obligatorio.
- DOMICILIO (calle o plaza), Nº, LETRA, ENTIDAD O PUEBLO, MUNICIPIO O PROVINCIA: Estos datos deberán referirse al bien que se transmite.

**CONCEPTO DE LA OPERACIÓN, TÍTULO DE LA OPERACIÓN:** *(Ver instrucciones Generales en Carpeta)*

- PRIMERA TRANSMISIÓN SÍ ☐ NO ☐ : Deberá cumplimentarse con una "x" la casilla que corresponda, pudiendo considerarse, en líneas generales, primera transmisión, la efectuada por un promotor, una vez finalizada la construcción o rehabilitación y una vez declarada la Obra Nueva del inmueble de que se trate.
- VALOR DECLARADO: Se hará constar en esta casilla el valor declarado en escritura en relación con el bien que se transmite.
- USUFRUCTO / NUDA PROPIEDAD: Deberá cumplimentarse un anexo por cada una de las 3 operaciones contempladas en caso de que se den simultáneamente. Ejemplo: adquisición de un inmueble por "A" en usufructo y por "B" en nuda propiedad, deberán cumplimentarse dos anexos 600-L.

  Deberá indicarse con una "X" la operación que se liquida.

  Si el USUFRUCTO es VITALICIO: deberá hacerse constar la edad del usufructuario en el momento de la constitución del usufructo. La edad se restará de la cantidad fija de 89 y así obtendremos el porcentaje del usufructo, que tiene como límite el 10% del valor total.

  Si el USUFRUCTO es TEMPORAL deberá calcularse en función del valor total del bien sobre el que recaiga, multiplicando por 2 el número de años del usufructo, sin poder exceder del 70%

  NUDA PROPIEDAD: Se señalará con una "X" cuando lo que se adquiere, transmite, etc., sea la nuda propiedad, debiéndose indicar el porcentaje de nuda propiedad, para lo cual deberá descontar del importe del bien que se transmite, el usufructo que recae sobre el mismo.

  VALOR USUFRUCTO/NUDA PROPIEDAD: Será el resultado de aplicar al valor de las fincas el porcentaje de usufructo vitalicio, o del temporal, o de restar al valor de las fincas el porcentaje de usufructo para hallar la nuda propiedad.

**SUJETO PASIVO, Nº SUJETOS PASIVOS, COEFICIENTE DE PARTICIPACIÓN, TRANSMITENTES Y PRESENTADOR:** *(Ver instrucciones Generales en Carpeta)*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.04.21 05:24:38 Z